

# GUGGENHEIM BILBAO

Atarian

## *Lucio Fontana.*

### *Atarian*

- Datak: 2019ko maiatzak 17–irailak 29
  - Komisarioak: Iria Candela, “Estrellita B. Brodsky” Curator of Latin American Art, The Metropolitan Museum of Art, New York, Manuel Cirauqui Guggenheim Bilbao Museoko Arte Arduradunarekin.
- 
- Fontanaren 1930 eta 1940ko hamarkadetako obra goiztiarrek handiagotuz doan abstrakzioz betetako ibilbidea islatzen dute, zeina urte zail haiek markatu zituzten estetika-korronteen eraginpean egon baitzen. Era berean, artistaren hastapenetako lan haiek obra berantiaragoetan nagusitu ziren mihise zigortuen izaera urratzailea iradokitzen dute.
  - Erakusketak *Ebakidurak (Tagli)* saileko adibide bikainak aurkezten ditu, bai eta horren aurreko artistaren *Zuloak (Buchi)* delakoaren garapena ere; hala, pintura, eskultura eta ekintza artistikoa batzen dituen eremu batean kokatzen du pieza horien erradikaltasuna.
  - Bere *Giro espazialen (Ambienti spaziali)* eta argi eta espazioarekin gauzatutako esperimientuen bitartez, neoizko hodiekin egindakoak barne, instalazio-artearen eta artelan inguratzailearen geroagoko garapenaren oinarriak ezarri zituen Fontanak.
  - *Atarian* erakusketak zeharkako ikuspegi osatu bat ezartzen du artistaren inguruan, XX. mendearen zati handi bat definitu zuten gatazka eta larritasunen eraginpean aritu baitzen hura: klasizismoaren berrazterketa abangoardien aldetik eta Europako mugimendu totalitarioei lotutako estetika, Mundu Gerra eta mugimendu artistikoen nazioarteko berrantolaketa gerraostean, eta teknologiaren gorakada “aro espaziala” deitu zen hartan.

Guggenheim Bilbao Museoak *Lucio Fontana. Atarian* aurkezten du, XX. mendeko artean giltzarri izandako artista bati egindako hurbilpena. Erakusketa honetan, ehun objektu inguruko hautaketa zainduak barne hartzen ditu 1931 eta 1968 artean egindako eskulturak, zeramikak, pinturak, paper gaineko obrak eta giroak; elementu horien bitartez, aukera dugu gerraosteko sortzaile itzaltsuenetako baten laneko aldi funtsezkoenak ezagutzeko.

New Yorkeko Metropolitan Museum of Art-ek antolatu du erakusketa, Milango Fondazione Lucio Fontana eta Guggenheim Bilbao Museoarekin lankidetzan, eta artistaren ibilbideko adibide bikainak aurkezten ditu, hainbat garaitako lanak esploratzearekin batera: eskulturako haren hastapenetatik, giroekin eta hainbat koloretako argi artifizialarekin egindako lan aurrendarietaraino. Ikuspegi panoramiko eta konplexu bat baliatuz, *Atarian* erakusketak Fontanaren sailik ikonikoenen —*Ebakidurak* eta *Jainkoaren azkena (Fine di Dio)*, esaterako— erradikaltasuna kokatzen du gaurkotasun eta inpaktu global handiko ibilbidearen testuinguruan.

Lucio Fontana (1899–1968) bere mihise urratuengatik da batez ere ezaguna, nahiz eta 1949an, bi hamarkadako jardunaren ostean, erabili zuen oihala lehen aldiz. 1958tik aurrera, pintura monokromoa urratu eta hura espazioaren absolutura zabaltzeko egindako keinu erradikala sistematiko bilakatu zen. Hala, sastakaia pinturaren bi dimentsioko plano desblokeatzeko tresna bilakatu zen, sakontasun ia mistiko baten esku-hartzea errazten zuena. *Atarian* erakusketak oinarritzko forma eta keinu horien jatorria arakatzeko aukera ematen du Fontanaren formazio eta esperimentazio aldietan; era berean, aretoetan artistaren praktikaren gainean Italia eta Argentinako hainbat mugimendu artistiko entzutentsuk izandako eragina beha daiteke, tartean futurismoak, neoklasizismoak eta Madí mugimenduak.

### Hasierako eskulturak

Lucio Fontanak Rosarion (Argentinan) hasi zuen ibilbidea eskultore gisa 1920ko hamarkadaren erdialdean, aitaren negozioan —Fontana y Scarabelli—, italiar immigrante ugari hartzen zituen hiriko hilerrietarako hileta-eskulturak egiten. Artista gaztea Milanera joan zen orduan, Brerako Arte Ederren Akademian eskultura klasikoa ikastera. Goiz agertu zuen jarrera antiakademizista, nahiago baitzuen modelatua zizela baino. 1930eko hamarkadan Italian garatu zuen bere karrera, eta igeltsu, terrakota nahiz zeramikazko eskulturak eta erliebeak ipini zituen bere praktikaren erdigunean. Estilo figuratiboaren baitan, Fontanak jarrera errealista, materiakoa eta biziki adierazkorra hartu zuen, Etruriako sarkofagoetako antzinako eskulturetan inspiratuta, haren emakume erretratuetan ikus daitekeen bezala, zeinak kolorez edo urrez margotuta baitzeuden batzuetan. Hala ere, Fontana artista eklektikoa zen, tradizioa barneratu eta abangoardiako mugimenduak —hala nola futurismoa— bere egiten zituena; horri esker, berezitasun estetikoa mantendu ahal izan zuen Italiako erregimen faxistaren pean. Buztinez egindako lanetan, generoak, gaiak eta erreferente historikoak fusionatzen ditu, praktika eskultorikoaren mugei aurre egitearekin batera.

### Materia

1950eko hamarkadaren erdialdetik aurrera, purpurina edo beira-zatiak bezalako material islatzaileak erabili zituen Fontanak bere pintura zulatuetan. Horretarako, Murano hiritik bere Milango estudioa beira-kopuru handiak bidaltzeko eskatzen zuen, bertan txiki-txiki egiteko. *Harriak (Pietre)* sailean, Fontanak beiraren berezitasunak ustiatzen ditu, pinturaren azalera ikuslearen espazioan proiektatzeko. Bere aldetik, 1957an hasitako *Olio-pinturak (Olii)* sailak enpaste trinkoak zituen, artistak espatularekin olio-pintura zerrenda zabalak hoditik zuzenean aplikatuz sortzen zituenak, akabera dirdiratsuak lortzeko. *Zuloak (Buchi)*, *Harriak*, *Olio-pinturak* eta 1950eko hamarkadako gainerako pintura-zikloak Art Informel delakotik oso gertu daude, haien prozesu semipikturiko eta semieskultorikoengatik, buztinaren modelatuan gertatzen diren jardunbideen parekoak baitira. Hain zuzen ere, 1959an *Natura* deituriko eskultura koloreztatuen sail bat hasi zuen Fontanak Albissola-n. “Ezereza, edo guztiaren hasiera” bezala deskribatu zituen artistak terrakotazko bola handi eta lakar horiek, zulo eta ebakidurak zituztenak. Fontanaren hatz-arrastoei, sail hauetako obra batzuetan ikusgai oraindik ere, argira dakarte artistak materialarekin zuen lotura fisikoa.

### Ebakidurak

Gerraosteko birloratze ekonomiko italiarraren, espazioko lasterketaren eta Gerra Hotzaren mehatxu nuklearraren testuinguruan sortu zituen Fontanak bere obrarik ikonikoenak: *Ebakidurak (Tagli)*. Plano pikturikoa haustean, *Ebakidurek* ekarri zuten keinu erradikala sabotaje-ekintza izan zen pinturaren diziplinarentzat. Literalki espazior egindako forma bat aurkezten dio Fontanak ikusleari. 1958an egin zuen

bere lehen pintura urratua, eta berehala findu zuen teknika: pintura modu uniformearen eta oparo aplikatzen zuen mihisearen gainean, eta oraindik umel zegoela urratzen zuen sastakai batez. Pintura lehortu ostean, irekidurari zuzenean eskuekin ematen zion forma. Azken urratsa ebakiduraren ahoa gaza beltzezko zati batekin finkatzea zen, hura atzealdera itsatsita. 1959an, pintura sail bati ekin zion, hexagono, pentagono, biribil eta beste perimetro irregularreko formak baliatuz. Lan horien azalera dinamikoek kolore-eremu monokromoa haren inguruko espaziora zabaltzen zuten, *Quantak* pinturretan gertatzen den bezala: multzo gisa horman ezarritako pintura txiki irregularreko multzoak dira. *Jainkoaren azkena* sailaren kasuan, kolore sintetiko zantzitako “arrautza astral” batzuek kosmos erraldoiaren eta espazio infinituaren ideia iradokitzen dute.

### Elementu islatzaileak

Bere ibilbide osoan zehar, Fontanak material eta azalera islatzaileekin esperimentatu zuen. 1930eko hamarkadako haren zeramikek bernizen, urre-orrien eta mosaikoen argi-efektuak ustiatzen zituzten jada, eta haren pinturretan beira-zatiak eta urre eta zilarrezko pintura diridratsua baliatzen zituen. Urre-koloreak liluratu egiten zuen artista: artearen historia osoan zehar erabili izan da objekturik dotoreenetan, eta haren isla metaliko enigmatikoa jainkozkotasunarekin eta hil osteko bizitzarekin lotu ohi zen. Barrokoan zehar ugaritu ziren urre-koloreak, eta eliza eta katedraletako arkitektura- nahiz ornamentazio-motiboetako elementu nonahiko bilakatu ziren, Kontrarreformaren ondorioz. 1961ean New Yorkera egindako lehen bidaiaren ostean, Manhattango etxe orratzak izan zituen inspirazio iturri Fontanak, eta kobrea, letoia eta aluminioa bezalako materialak erabiltzen hasi zen, *Metalak (Metalli)* deituriko sail batean. Azalera distiratsu horietara zuzenean heltzen den argia ikuslearengana itzultzen da inguruko arkitektura betez, ispilu-efektuak behatzailearen isla obran bertan deskonposatzen duen artean. Material horiek koadroaren aukera inguratzaileak areago aztertzeke aukera eskaini zioten artistari, hala nola, lanaren sakonera eta ikuslearekiko harreman fisikoa.

### Giro espazialak

Artistak Espazialismo izendatu zuen mugimenduaren bitartez —horren *Manifiesto Blanco* delakoaren egile da—, Fontanak arteen sintesia bilatzen du, eta hala, diziplina anitz batzen dituen bere ikuspegiak arte-esperientziaren nozioa zabaltzen du, espazioa haren osotasunean hartuta. Instalazio inguratzaileen —*Giro espazialak (Ambienti spaziali)* esaten zien— eta argi elektrikoarekin espazioan egindako esperimentuen aurrendari izan zen, baita neoizko hodian erabileran ere. *Atarian* erakusketak *Neoizko egitura Milango Bederatzigarren Trienalerako (Struttura al neon per la IX Triennale di Milano, 1951)* neoizko arabesko erraldoiaren berreraikuntza bat hartuko du, baita Espainian aurretik erakusgai ipini gabeko bi instalazio inguratzaile ere: *Giro espaziala: “Utopiak”, Milango Hamairugarren Trienalean (Ambiente spaziale: “Utopie,” nella XIII Triennale di Milano, 1964)* eta *Giro espaziala argi gorriarekin (Ambiente spaziale a luce rossa, 1967)*. Hiru pieza horiek Fontanaren esperimentazioen izaera bide-hauslearen adierazgarri dira, haren artelan erabatekoaren bilaketan; hain zuzen ere, lan horien sortze-dateak hiru bosturteko sormen-aldia hartzen dute. Proposamen horiekin, artistaren ostean etorri ziren izaera inguratzaileko garapenen aurrendari gisa paratu zen Fontana arte garaikidearen baitan, non eskultura-, argi- eta arkitektura-lanen batura diziplina artistikoen banaketaz harago baitoan.

## Katalogoa

Irudidun katalogo batek osatuko du erakusketa, nazioarteko adituek hainbat gai landuz idatzitako saiakerekin: artistaren lana, haren jatorria Argentinako eta Italiako esparruei zegokienez, haren praktikaren aniztasuna eta 1968an hil zen arte horrek izandako nazioarteko garapena ere. Erakusketaren ikonografia xeheaz gain, argitalpenak giroen, enkargu publikoen eta artistaren estudioaren argazkiak ere hartzen ditu, Fontanaren lau hamarkadako ekoizpena jasotzen dutenak; hala, XX. mendearen erdialdeko urteak definitu zituzten auzi handien *atarian* kokatzen gaituen obra baten gaineko ikuspegi berria ezartzen du katalogoak.

## Azaleko irudia

Lucio Fontana (1899–1968)

*Kontzeptu espaziala, Esperoak (Concetto spaziale, Attese)*, 1959

Olio-pintura mihise gainean ebakidurekin

90,8 × 90,8 cm

Olnick Spanu Collection, New York

© Fondazione Lucio Fontana, Bilbo, 2019

## Argibideetarako:

Guggenheim Bilbao Museoa

Komunikazio eta Marketin Saila

Tel.: +34 944 359 008

[media@guggenheim-bilbao.eus](mailto:media@guggenheim-bilbao.eus)

[www.guggenheim-bilbao.eus](http://www.guggenheim-bilbao.eus)

Guggenheim Bilbao Museoari buruzko informazio guztia hemen eskuragarri: [www.guggenheim-bilbao.eus](http://www.guggenheim-bilbao.eus) (prentsa-eremua).

Prentsa irudiak:  
**Lucio Fontana.**  
**Atarian**  
Guggenheim Bilbao Museoa

**Prentsarako irudiak eskuratzeko sareko zerbitzua**

Museoaren webguneko prentsa eremuan ([prensa.guggenheim-bilbao.es/eu](http://prensa.guggenheim-bilbao.es/eu)) izena eman dezakezu erakusketen eta eraikinaren inguruko bereizmen handiko irudi eta bideoak deskargatzeko. Oraindik konturik ez baduzu, eman hemen izena. Erabiltzailea baldin bazara, sartu zuzenean hemen erabiltzaile-izena eta pasahitza. Oso garrantzitsua da irudien koloreen profila ez aldatzea. Mesedez, erabil ezazu beti jatorrizko profilen kolorea, eraldatu gabe.

- Mailegatutako irudiak *Lucio Fontana. Atarian* erakusketari lotutako publizitate editoriala egiteko baino ezingo dira erabili; Guggenheim Bilbao Museoa egongo da hori ikusgai, 2019ko maiatzaren 17tik irailaren 29ra.
- Osorik agertu behar dira, moztu gabe, ezer gainjarri gabe eta manipulatu gabe.
- Copyrightaren kreditua erreproduzio guztien ondoan agertu behar da.
- Sarean argitaratutako irudiek 72 ppi-tik beheragoko bereizmena izan beharko dute, eta irudiaren tamaina ez da 4.12 megapixel baino handiagoa izango (gehienez 10 x 15 cm).

Argibide gehiagorako, jarri harremanetan Guggenheim Bilbao Museoaren Prentsa Arloarekin: telefonoz, +34 944 35 90 08, edo posta elektronikoz bidez, [media@guggenheim-bilbao.eus](mailto:media@guggenheim-bilbao.eus)

Lucio Fontana (1899–1968)

*Kontzeptu espaziala, Esperoak (Concetto spaziale, Attese)*, 1959

Olio-pintura mihise gainean ebakidurekin

90,8 x 90,8 cm

Olnick Spanu Collection, New York

© Fondazione Lucio Fontana, Bilbo, 2019



Lucio Fontana (1899–1968)

*Teresitaren erretratua (Ritratto di Teresita)*, 1940

Mosaikoa

34 x 33 x 15 cm

Fondazione Lucio Fontana, Milan

© Fondazione Lucio Fontana, Bilbo, 2019



Lucio Fontana (1899–1968)

*Neozko egitura Milango Bederatzigarren Trienalerako (Struttura al neon per la IX Triennale di Milano)*, 1951

Beirazko hodia eta neoa

280 x 1000 x 1200 cm

Guztizko neurri aldakorrak

Suntsitua

Erakusketan: 2019ko berreraikitzea, Fondazione Lucio Fontana-k baimendua, Milan

© Fondazione Lucio Fontana, Bilbo, 2019



Lucio Fontana (1899–1968).

*Kontzeptu espaziala, Quantak (Concetto spaziale, I Quanta)*, 1959

Ur-pintura mihise gainean ebakidurekin,

6 atal

Neurri aldakorrak

Bilduma pribatua, Italia

© Fondazione Lucio Fontana, Bilbo, 2019



Lucio Fontana (1899–1968)

*Giro espaziala argi gorriarekin (Ambiente spaziale a luce rossa)*, 1967

Zur margotua, beirazko hodiak, neoia eta baliabide anitzak

220 × 600 × 490 cm

Suntsitua

Erakusketan: 2019ko berreraikitzea, Fondazione Lucio Fontana-k baimendua – Pirelli

HangarBicocca proiektua 2017

© Fondazione Lucio Fontana, Bilbo, 2019



Lucio Fontana (1899–1968)

*Olinpiar garailea (Atleta esperoan) [Campione olimpionico (Atleta in attesa)]*, 1932

Igeltso margotua

121 × 92 × 70 cm

Collezione d'Arte e di Storia della Fondazione Cassa di Risparmio, Bologna, Italia

© Fondazione Lucio Fontana, Bilbo, 2019



Lucio Fontana (1899–1968)

*Kontzeptu espaziala (Concetto spaziale)*, 1950

Olio-pintura mihise gainean zuloekin

85 × 65 cm

Fondazione Lucio Fontana, Milan

© Fondazione Lucio Fontana, Bilbo, 2019



Lucio Fontana (1899–1968)

*Kontzeptu espaziala, ogia (Concetto spaziale, il pane)*, 1950

Terrakota margotua

42 × 33 × 3,5 cm

Fondazione Lucio Fontana, Milan

© Fondazione Lucio Fontana, Bilbo, 2019



Lucio Fontana (1899–1968)

*Kontzeptu espaziala, New York 10 (Concetto spaziale, New York 10)*, 1962

Kobrea ebakidura eta urradurekin

3 panel, 94 × 234 cm bakoitzak

Fondazione Lucio Fontana, Milan

© Fondazione Lucio Fontana, Bilbo, 2019



Lucio Fontana (1899–1968)  
*Kontzeptu espaziala, Esperoa (Concetto spaziale, Attesa)*, 1959  
Ur-pintura mihise gainean ebakidurarekin  
118 × 88 cm  
Collezione Prada, Milan  
© Fondazione Lucio Fontana, Bilbo, 2019



Lucio Fontana (1899–1968)  
*Borroka (Battaglia)*, 1947  
Zeramika beiratzatua  
18 × 30 × 12 cm  
Bilduma pribatua  
© Fondazione Lucio Fontana, Bilbo, 2019




Lucio Fontana (1899–1968)  
*Kontzeptu espaziala (Concetto spaziale)*, 1954  
Olio-pintura, tinta eta beira mihise gainean  
70 × 49,5 cm  
Bilduma pribatua, Italia  
© Fondazione Lucio Fontana, Bilbo, 2019



Lucio Fontana (1899–1968)  
*Kontzeptu espaziala, Esperoa (Concetto Spaziale, Attesa)*, 1968  
Mihisea ebakidurarekin  
61,4 × 50,3 cm  
Vitart, Suitza  
© Fondazione Lucio Fontana, Bilbo, 2019



Artistaren erretratua  
© Fondazione Lucio Fontana, Bilbo, 2019



Artistaren erretratua  
© Fondazione Lucio Fontana, Bilbo, 2019

